

# OREKA 2025-2026

Jarduera programa egonkorak dituzten irabazi asmorik gabeko kultur entitateei Gipuzkoan kulturaren edozein esparrutan proiektuak egiteko laguntza

Oinarriak eta infoa



## ESKATZAILEAK

Irabazi-asmorik gabeko kultura-erakundeak, programa finkatuak dituztenak, musika, antzerkia, dantza, ikusizko arteak, literatura, pentsamendua edo ondarea bezalako arloetan lan egiten dutenak. Lurraldearen kultura-eskaintzan duen espezializazioa, berezitasuna eta inpaktua baloratuko dira.

## KANPO GELDITZEN DIRA

- Beren izaera edo xedea dela-eta, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren jardun-eremuekin zuzeneko loturarik ez dutenak
- Dirulaguntza izendunaren xede direnak
- Sailaren beste deialdi batzuetan hobekien jasota dauden erakundeak. GFAko Citura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirolekoa. Eskera deialdi horietara bideratu ahal izango dira
- Aisia, denbora libre eta gazteria okupatzera zuzendutakoak
- Jai-programak eta erritu-programak
- Merkatu tematikoak, azokak edo nekazaritza-jarduerak antolatzea, eta lehiaketa edo jarduera gastronomikoak
- Ikuskizun eszenikoak, ikus-entzunezkoak eta musikalak sortzea eta ekoiztea, profesionalak eta komertzialak
- Artista, talde edo ikuskizun beraren birak edo erakustaldi errepikatuen proposamenak
- Turismoa sustatzeko jarduerak
- Diskoak, DVDak, liburuak... ekoiztea edo editatzea.

\* **Salbuespen gisa, egoitza soziala eta fiskala Gipuzkoatik kanpo duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek eskatu ahal izango dituzte laguntza horiek, betiere beren jarduera Gipuzkoan garatzen badute eta jarduketa-programa finkatuak badituzte.**

## DIRU KOPURUA

**Gehienez 30.000€**

Diru laguntzaren zenbatekoak ez du gaudituko diruz lagundu daitekeen programa garatzeko aurreikusitako gastuen %70a.

Horrek esan nahi du proiektu bakoitzak gutxienez aurrekontuaren% 30 ziurtatu behar duela beste iturri batzuen bidez: publikoak, pribatuak, pertsonalak...

## AURKEZTU BEHARREKOAK

Eskaera- inprimakia bete behar da honako hau aurkeztuta:

1. Proiektuaren laburpena eta aurrekontua (zehaztuta eta orekatuta proiektuaren diru-sarrerak eta gastuak) **(nahitaezkoa)**



**Eskaera orria egoitza elektronikoan dago eskuragarri**

## **ESKAERA EPEAK ETA TRAMITAZIOA**

**AZKEN EGUNA: 2025EKO MAIATZAREN 15**

### **ZURIKETA AURKEZTEKO**

Aipatutako dokumentazioa aurkezteko epea deialdiaren hurrengo urteko martxoaren 1ean amaituko da.

### **ORDAINKETA**

Dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira: % 60 dirulaguntza emateko ebazpenarekin batera eta % 40 diruz lagundutako jarduera egin ondoren.

### **TRAMITAZIOA**

Prozesu osoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza administratiboaren bidez egin behar da: (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu>)

**GOMENDAGARRIA:** Ziurtagiri digitalen bat erabiltzea (B@kQ, DNle...)

## **BALDINTZAK**

- Gutxienez aurreko 5 edizioak kontatu izana
- Gipuzkoan garatu behar dira
- Deialdiaren urtean garatu behar dira (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra)
- Bideragarriak izan behar dute
- Jendaurreko aurkezpenekin, jende guztiarentzat zabalik

## **LAGUNTZAK EBALUATZEA ETA EMATEA**

<b>1. FASEA</b>	<b>65 PUNTOS</b>
Erakundearen ibilbidea eta esperientzia	10
Proposamenaren interesa eta testuinguruaren azterketa	10
Kultur eskaintzari egindako ekarpena	10
Berrikuntza eta esperimenezkoak	15
Parte hartzeko bideak eta lankidetzak- sareak irekitzeko eta mantentzeko gaitasuna	10
Zentzua eta jarraitasuna	10
<b>2. FASEA</b>	<b>35 PUNTOS</b>
Proposamenaren bidegarritasuna, helburuei dagokionez	9
Euskararen presentzia eta erabilera	8
Genero ikuspegia txertatzea	8
Gazteak sartzea	10